



SAILBURUA
LA CONSEJERA

**OSAKIDETZAKO LEHEN MAILAKO ARRETA EREMUKO GREBA. 2019KO
APIRILAREN 12RAKO ETA MAIATZAREN 17RAKO GUTXIENeko ZERBITZUAK.**

Lehena.- 1. Osakidetza-Servicio Vasco de Saludeko lehen mailako arretaren eremuan, 2019ko apirilaren 12rako eta maiatzaren 17rako deitutako greban langileek haien greba-eskubidea baliatu dezakete, betiere ondoren adierazten diren funtsezko prestazioak eta haien ondoriozko gutxieneko zerbitzuak atxikita:

- a) Lehen mailako arreta-Zentroetan, greba-egunean lan egin behar duen personala arituko da larunbatetako ohiko ordutegia eta zerbitzuak mantenduz.
- b) Etengabeko Arretako Guneen %100.
- c) Araba ESlan, Donostialdea ESlan, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESlan, Bilbo-Basurtu ESlan, Uribe ESlan, Debabarrena ESlan eta Bidasoa ESlan, zerbitzu horiek eman ohi dituzten langileen %50.

